# ZALDIBIAKO BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOA

- Hasierako Onarpena -
2022 Abendua

Bideen inbentarioaren dekalogoa:

_ Udal Inbentarioan sartzen diren bideek Jabari publikoko ondasuntzat hartzeko nahikoa zantzu bildu behar dituzte. Ez da Nahikoa erabilera-tolerantziarekin edo pasatzeko eskubidearekin.

_ Behin betiko onarpena erdiesteko burutzen den administrazio-prozedurak aukera ematen dio auzotar eta gainerako interesdunari, alegazio edo errekurtso bidez, edukia ezbaian jartzeko.

_ Bide publikoen erabilerak udal ordenantzak arautuko ditu. Horretarako, Erabilera Komun Orokorra eta Erabilera Komun Berezia bereizi behar dira.

_ Bide horien jabetza publikoaren titulua <eskuratze-preskripzioa> da, eta haien antzinako jatorrian oinarritzen da.

_ Bidetxurrak udalerriko zein eskualdeko berezitasun bat dira; denboran zehar hartutako igarotze-eskubidea islatzen dute baina ez dira nahitaez Ondasun publikotzat hartu behar.

_ Bide publikoak mantentzea udalaren erantzukizuna izango da, nahiz eta lan kolektiboko erregimena <auzolana> ezarri ahal izango duen edota ekarpen bereziak exijitu hobetze-lan nabarmenetarako.

_ Bide publikoen inbentarioa ez da mugaketa bat; beraz, bere funtzioa ez da zabalera-ezaugarriak, maldak eta gainerako elementu funtzionalak zehaztea, bidearen titulartasuna zehaztea baizik.

_ Inbentarioa dokumentu bizia da, etorkizunean bide berriak sartu edo oraingo honetan sartu direnetakoren bat zalantzan jarri liteke, baldin eta ikerketan oinarritutako datuak hala ondorioztatzen badute.

_ Dokumentazio guztia paperean dago eskuragarri Udalatxean bertan, baita formatu digitalean eta GIS formatuan ere, kontsulta telematikoa egin ahal izateko.

